



Bergarako erakusketan ardazlari zar giputza.

#### EUSKALDUNAK:

Orain ogei ta amar bat urte, *Euskaldun Biltokia* izendun teatrutxo artan, beste zerbaitez gainera, *Colonia inglesa* zeritzaion komedia bat atera nuen. Orduan uri artan, Bilbon, orain baino gaitzago zan euskera utsezko lanak antzokietan ageñaraztea. Oregatik antzezleri (aktore) aiek, nire lumapekoak beintzat, batzuk euskeraz ta besteak erderaz itz egiten zuten. Lenengoan artean baseñitar bat atera nuen *Colonia inglesa* artan, bein edo bestetxotan erderaz ere mintzo zelarik. Aren erderakadak gozaro faña eragin zien entzule geien geienai. Bati ez. Eta bat au nor zen atzeginez jakinaraziko dizuet: Arana Goiri. Jardines-kaleko etxe artatik kaleratu zanean inguruko lagunuen batek galde egin zion: «¿zelangoa eritxi dautsazu Colonia inglesa oni?». «Polita deritxot, baiña gauza batek enau bete. Baseñitar gizagaiso bat oñen bañegañi atarateari ezteritxot ondo, ez gitxiago be».

Bizkaian «añazoa dozu»-ren ordez, alde batzuetan beintzat «berbabidean zagoz» esan oi da. Izpidean zegoen gizon ospetsu hura. Gaurko mintzaldi onetan azalduko ditudan oitura ta erisinetetxoak geien geienak baseñitarñen artean baturikoak ditut. Urietan Euskaleria azal-azalean baizik ezta bizi, geroago ta azalerago. Baseñietan bizi da gure ama zar maitagañi au beronen bizi-sustraiak sakon ta erotsu dituela. Nik uste dudanez, gaurko mintzalditxo onen bitartean askok, geienok noski, noizean beinka pañiritxo batzuk egingo dituzue; eta orain ogeita amar urteko gorabera hura beñiz gertatu eztakidan, gure baseñitarñen artean bein edo bestetxotan Alemania ta Frantzia ta beste Eñi batzuetako nekazariak aipatu nai izan ditut. Etxekoa eztañari beti izaten zaio lotsa ta begirune geixeago.

Beste zerbait ere oartu beañean nago. Lengo ilaren erdi-inguruan, Aragon-goialdean euskalondakin zâr-zâr bila ari nintzanartean, Bergarako euskalegun auetarako egitaraua (programa) bidali zidaten. Nire lan onek «Conferencia en euskera sobre leyendas populares vascas»

## Euskaleriko oitura ta sineskeritxo bat edo beste

R. M. Azkue apaizak

Bergarako Batzar-egunetan,  
garoñaren 3-an irakurritako lana



izan bear zuela irakuñi nuenean, ango nire azteñaldia eten eta ipuin ta irakurgai oñen eske Bilbora jo bear izango nuen. Baina Eusko Ikaskuntzako zuzentzaile ta lagunen baimenez, *Leyendas populares vascas* gaitzat artu-beañean, *Costumbres y creencias populares vascas* (gure Eñi onen oitura ta sineskeritxo batzuk) jakinaraziko dizkizuet. Luzêgitu enaitean, bildurik dauz-kadan ziriboño ugarietatik gaitxo aukeratu ditut: Erleak, Begizkoa, Igañgunak, Astolastera, Oilopeko arautzak, Doniane ta Ezkontzak, beste zertxobait or-emenka arteratuz.

**Lenengo gaia: Erleak.** Mamu eder zoragari auen nagusiari Euskaleriaren alde geienetan erderatik arturiko izena eman oi diogu: *erégiña*. Zuberotarak izen bitxi bat daukate: *andereeder*, erderaz «hermosa señorita». Nonbait *andere* «señora» entzun izan dut. Erleak ezomendira, diruz beintzat, ez erosi ez saldu bear; beste zerbaitez ordetu bai. Bilbo-ondoan neronen adis-kide batek, erleak bere uda-etxeko baratzean Erandioko seme bati ezañarazita, bere lanaren ordezenbat diru nai zuen galde egin zionean, inolaz etzuen zuriko bat (ardit bat) ere baseñi-tararak artu nai izan. Oitura auxe, berau, Alemanian nonnai zabaldua omendago. *Handwörterbuch des deutschen Aberglaubens* edo Alemaniako sineskerien eskuliburua deritzaion, orain atalka agertzen ari diran liburu aundi ederean itz aukeratu ditut: *Die Bienen sollen nicht gekauft werden* «erleak ez tira ez erosi ez saldu bear». Aragonen esan zidaten «las abejas no se venden, se cambian por ovejas». Gure egun auetararte gizona bera erosi ta saldu izan dute; ez urutiko erietan soilik. Ondaribian, orain irureun urte ez oso, ango seme batek Eiza Audala zeritzaion mairu bat saldu zuen (1). Gizona bai ta erleak ezin saldu. ¿Nondikoa otedu mamu eztingiletxo onek gizonak izan ez tuen berezitasun edo privilegio au?

Erlategi-etxeko nagusia naiz bere emaztea il dadinean (toki batzuetan etxeko edozein ilta ere bai) norbait erleengana joan ta ilberia itz gutxitan ematen die: *ugazaba il da* edo *nagusia il da*; *ugazabandrea il da* edo *etxeko andrea il da*. Alemanian ere, Sartori jakitunaren liburu batean irakuñi dudanez, oitura auxe berau daukate (2). Westfaliako baseñi askotan, erleai etxeko nagusien ilberia eman ezik, urtean berean erlauntzak ustuko lirakela uste dute (3).

Gernika-ondoko basauri polit Gorozikan, etxekoren baten erio-egunean, *erleen beña egiñu* esanez, adiskide bat beñi au ematera bidaltzen dute. Isiltxorik urerutzen zaie mandataria ta erlauntzari estalkia kenduta, bederatziruñen osoan, elizkariak dirauten bederlatzi egun aietan, erlauntzak zabalik utziz, bañukoai itz aukeratu dituzkie: *Urlia il da*. Elizako bederatziruñena amaitzean erlategiko bederatziruñena ere amaitzen da, len bezalaxe erlauntzak estalirik uzten dituela. Gainera ileta-zantzuren bat (alguna señal de duelo) erlategi-inguruan ezari oi du mandataria. Napañoako Bera deritzaion uritxoan, Suspela auzotegiko emakume batek onelaxe (azentu ta guzi) iragari zien erleai beren jabearen eriotza: *etxeko andria il da ta egiñu argiñeri aunitz, zerürä biältzeko*.

Bizkaiko baseñi askotan erlategi-auñean, Eramu-egunean bedinkatutako kurutze bat, saratsezko kurutzea, zutik jartzen dute. Bein edo bein erleak alkartu ta igesi joaten ere bada-kite ta ona emen, berak erakartzeko, basauri batzuetan egin oi dutena: ontzi batean ardoa ta beste batean eznea erakutsi ta gainera erlauntzak ere ardoz ta eznez igortzi. ¿*Erlak ardau-zale aldira?* galde egin nion Gorozikan nire beñi-emaileari. *Jauna*, erantzun zidan berak, *mozkortiak dira erleak*. Añigoiagan irakasle izan nuen emakumeak ere erleai neguan, otzez il ez titezen, azukrez gozaturiko ardoa ematea on dela esan zidan. Beste oitura bitxi baten beñi ere izan nuen len aipaturiko Gorozikan. Zaldi naiz beor bat il dadinean, bere burua taket luze baten erpinean ezari ta erlategi-ondoan zutik egun batzuetan utzi oi du abere ta erle-jabeak.

II. Goazen orain bigařen gaira, *Begizkoa* zer den ta nola kendu diteken ikastera. Izen asko ditu gaitz onek or ta emen zabaldua. Beste erietako izenen aldean geron artekoari deritzaioit nik egokiena. Italiaraz iru ditu: *malocchio*, *jettatura ta mursiana*. Gure erdalduñak *mal de ojo* eta gainera *aojo* ere esaten diote. Aragon-aldean sineskeri au ila izanañen, zañen batzuk *el mal*

(1) Euskal-Esnalearen. XVIII-384 garñen orialdean gertaera au irakur daiteke.

(2) *Den Bienen insbesondere wird der Tod des Besitzers, des Bienenwatters, alsbald in aufmerksamer Freundigkeit mitgeteilt* (Sartori, Sitte und Brauch. 11.132).

(3) *Vor allem müssen die Bienen in Kenntnis gesetzt werden, wenn nicht binnen Jahresfrist alle Stücke abzehren und verzehren sollen.* (Westfällische Völkunde, 101).



dau izendatzen dute. Frantzesak *mauvais oeil*, Alemanak *Bösser Blick*. Guk, Euskaleri osoan ezaren, alderik geien geienetan beintzat, *begizkoa* esaten diogu. Aetzen artean (Aezkoan) Frantzia bezalatsu *begi gaiztoa* ematen die izentzat. Ormaiztegin amonaxo bati galde au egin nion bein. «¿Begizkorik oteda gero? ¿Begizkorik eztala? Izena ezari zaionean, zerbait bada» erantzun zidan. «Eta begizkoa egin zaion umeari ¿zer egiten díozue gaitz ori kentzeko?». «Atzapar zilarezko bat eskubituřetik zinzilika erabiltzea omenda gauzarik onena». Ormaiztegin bezalaxe bigaren galde ori basauri batzuetan egin izan dut. Entzun nituen itzakin berakin azalduko ditut eman zizkidaten osapideak. Araban, Aramaionako Olaetan: «umeari begizkoa kentzeko, kirikixõaren agiñak (1) soiñean yosi oi dotsez». Bizkaiko Murelagan: «onetakoko, begizkodunari kaltzerdiak iruntzietara (2) jantzi bear ñakoz». Aramaionako Gantzagan: «begizkoa kentzeko ura Eloiřixotik ekartzen zeben Gantzagara, Napařoako San Gregoriřotik be bai». Eloiřion bi sendagailu (eremedio) eman zizkidaten. Lenengoa: «begizkodun umea osatzeko, Elizako iru ontzitatik erõan bear da ur bedinkatua». Bigarena: «Eskõan dabiñenak baturiko ogixaren zati bat umeari emonezkerõ, ume onek eztau begizkorik izango». Markina-ondoko Bolibar edo Goiñibařen eman zidaten au: «begizko(r)ik umea(r)i e(g)in eztakixon, ikåtza kolkõan sartzen eutsen». Polita da Napařoako Aezkoan eman zidaten osapide au ere. «Begi gaiztoa norbaiti egin dakotenean, altzinago apezta deitzen ze (3). Orai, apezik eztenean xuxkiari (4) beři-beřitan bi tziñuř gurutze bat egin, xuxki-gäinean sartu ta guatze-altzinean (5) iminten da». Lařaungo Baraibařen irakatsi zidaten beste au. «San Pelayo-ařatsaldean Añirä, begizkoa kentzeko, beti negařez ari deren umeak eta olako zenbait gaitz dutenak Ebanjelioak ateratzera eramaten řizte. Apaizak liburu batetik zerbait leetu (6) ta iru aldiz ziñatu ta gero, Pater Noster eřezatuz, erlikia bat mindunari, muñ emateko, urbiltzen zaio. Ebanjelioak aterata gero kuñun hana ematen die apaizak. Bi eřeal pagatzen da. Kuñun ořetan, izkribatutako paper bat egoten da Gipuzkoatik ere jokera andia dago Añirä (7): Bedayotik, Amezketatik, Ataundik eta ořela». Lekeition eta Gorozikan esan zidaten-onek ere jakingariřtxoa dirudi: «kutuna papařetik dingilizka nai yosita erabilten da. Kutun-bařuan ikatza, diru txiki bat, umearen zila (gordeta eukirikoa) ta apiõa eukiten dira». Bizkaiko beste uritxoren batean, zeñetan eztakit, au gaineratu zidaten: «kutun ořetan iru gauza sartzen ebezan: ogi bedinkatua (iru zatitan elizatik ekařirikoa) ikatza ta oilo-korotza». Nonbait eta noizbait kutun ořen ordeaz azkonoařaren atzapartxo bat zinzilika jartzen zuten gurasoak begizkodunaren papařetik. Ona emen Ařasateko eskribau Bařutiak orain beřeun bat urte egindako «Acto para la noche buena» deritzaion teatru-gaitxo batean diona:

Azkonoařaren atzamartxo  
ekařiko dot menditi,  
begizkorik eztegiñuen  
bulartxorean isegi. (8)

Nire lan onen ziriõořa egiten asi nintzantetik ardura andi bat sartu zitzaidan garmuñ-arteaz: ezotezen nire mintzalditxo au luzearen luzez gogaikaři izango. Eta «azkonoařaren atzamartxo» ořetara eldutakoan, begizkoa kentzeko osapiderik zenbat azaldu ditudan jakin nai izan dut: amabi dira. Nik bezala burua urdinik darakutsuten askori bein baino geiagotan zuen gaztezařoan Maestro Ciruelo-ren izena belariratu izan edozaitzue. Bere liburu noizbait ospetsua eztut nik aurtentearte eskuetan iduki al izan. Bere izena laburtuz aipatzera noakizue. «*Tratado en el cual se reprueban todas las supersticiones...* compuesto por el Doctor y Maestro Pedro Ci-

(1) Trikuaren ortzak.

(2) Gainekoř azpira.

(3) Antxina apaizari dei egiten řitzaion.

(4) Eřatřari, eskobari.

(5) Oe-aurean.

(6) Irakuri.

(7) Añ Lařaungo auřo edo urixko polit bat da.

(8) 1897-gařen urteko Euskalzale deritzaion asterokoan, 402 ořialdean irakur daiteke lan eder au.



ruelo. Año 1628». Saludadoreen aurka (kontra) gauza gogořak esan zituen. Gure saludadorea (erderazko «saludador») zazpi anai arĕbarik gabe etxe baten sortzen direnean, zazpigarenak mingaiñaren azpitxoan kurutze bat izan oi duela uste du edo uste zuen erĭak. Orain irurogei bat urte Euskaleři osoan entzute andia zuen Salvatierrako saludadoreak. Sineskeri au ostikopean bezala zapalduta gero, «Remedios naturales contra la rabia y ponzoña» dakarzki Maestro Ciruelok. ¿Sendapide auek zenbat direla uste duzue? Ogei ta iru. Baten batzuk baizik eztitut ezagutaraziko. Lenengoa: zakuřaren odola «sangre de perro». Bigarena: zakuřaren ileak «pelos de perro». Zortzigarena: urdai gordina «tocino crudo». Bederatzigarena: ile sapindu ta ardoz bustia «pelo majado y rociado con vino».

Maestro Ciruelori ogei ta iru osagaři ontzat artu zizkiotenean, orainarteko nire amabiat bat edo beste gaineratzea etzadazue, gizonak, gaizkitzat artu.

Begizkoa, gure Eři onen eritiz, etzaie aurai soil-soilik eratxekitzen, bai ta abereai ere. Durango-aldeko Garay deritzaion mendi-eritxoan esan zidaten onako zertxo au: «begizkoa kentzeko, kortako abere baten adařa ginbeletaz zulatu ta zulo atantxe argizaia sartu beio norbaitek». Len aipatutako Murelagan: «txalari, begizkoa ez egiteko, argizai bedinkatua ezarten ġako». Ona orain Ařatiako Igoře edo Yuřen entzun nuena: «Baseřitar bat bere burdi ta idi- pare ta guzti bidez ebilela, begizkoa egiten ekian bat aurkiturik, akiloa buru-ganean zutunik ebala igaro zan aren ondorik. Akiloa itsutu zan (erderaz «la aguijada desapareció») ta akiloari eskeřak begizko bārik etseratu zirān idiāk».

Lantxo au luzegi izan eztiten arduratan egonaren, beste bi osapidetxo aipatu bear ditut. Lenengoa Asterĭkan, Ermun, Lekeition eta Markinan eman zidaten. «Ume bat norbaitek begizyo dabenean, bere Aitari soineko alkondarea aldatu eragiten ġako ta alkandora atantxe begizkodun umea batu bear da». Bigarena Beřizko amona bati orain ogei bat urte entzun nion. «Auzolanetan nai elizkari-egunetan, etxe baten lagun asko batuta dagozanetan, etxeko ume bat edo bati begizkoa egitea saři jazoten da ta orduan katiĭu baten ura mai-ganera ekaři ta lagun guztiak banan banan iru atzamar ur atantxe sartu ta ur ori begizkodun umeari emoten jako». Murelagan eskua ta gainera aurpegia ere garbiarazten zaizkie begizkoa egin dutenai; eta ur ori begizkodunari edaten eman oi diote edo zioten, bertan esan zidatenez «nai mutilneskatofxu nai beiarĭ». Eztatik erdaleřietan Elořion baturiko sinestetxo au otedagoen: begizkoa, norberak nai eztuela ere, ume naiz abereai egiten zaiela. Alemanian daukaten sineskeri bat ordea, toki askotan galde eginaren, ezta Euskaleřian batu al izan. An gure begizkoari, len aipatu dudanez, begirakune gaiztoa (*Bösser Blick*) esaten diote. Gainera begirakune ona ere badute: *güter Blick*. Gure begizkoa beti gaiztoa izan oi da, beti zori txarera.

III. Goazen orain beste gaitxo bat azaltzera. Iztegia argitaratu ta gero, Ondařoako auzotegi Azteřika deritzaionean itz eder bat ikasi nuen: *igaregun*. ¿Zer dira egun auek? Eztaikit beron izenak erderaz egokirik oteduen. *Dias augurales*: onelako zerbait ditugu *igaregunak*. Bizkaiko beste basauri batzuetan *ilegun* esaten zaie. Benapařoan batzuk *sortelegun*; beste batzuk, Lapurdin ta Zuberon bezala, *zothalegun* edo *zotelegun*. Aragonen, edo gure zařak esan oi zutenez, Aragoan *signos* eta *contrasignos* dira. Bretainian, Normandian eta Suizan, sineste au erĭan ongi sartua izanaren, eztaikit egun auek berarizko izenik oteduten. Nik irakuřitako liburuetan ezta beintzat izentxo auxe baino besterik ageri: *Die Zwölften*, euskeraz amabigarenak (1). Egun auetan nolako eguraldia alakoā izango da urtearen amabi iletan, Euskal ta erdaleři orietan uste dutenez. Asterĭkan (Ondařoako auzotegi artan) urtebeři ta bere uřengo amaika egunak dira *igaregun* auek. Egun orietatiko bigarenan euria bada, urtearen bigaren ila, otsaila, euritsua izango da. Boskařen *igareguna* legořa izanezkerio, maiatzak, boskařen ila delako, eurigabea izan bear; eta ořelaxe beste amabi egunetako eguraldiak urtearen amabi iletakoak iragarten dituzte. Austriako Tirolen *igaregun* auek Egubeři ta Eřege bitarteko amabi egunak dira. Frantzian ere ezaguna da sinestetxo au. *Coutumes populaires de la Haute Bretagne* deritzaion liburuan «le vent qui regne les douze premiers jours de l'année est celui qui souffle pendant chacun des douze mois, janvier correspondant au premier, février au

(1) Paul Sartori: *Sitte und Brauch. Band VII.*



second... etc. Il en est de même pour le brouillard (E. P.). Ailleurs, le temps qu'il fait les douze premiers jours est celui qui sera toute l'année» (1).

Aragonen, Acumuer deritzaion goialdeko basauritxoan beintzat, igarëgun auek bitarikoak dira: Santa Lucia ta Egubeñi-bitartekoak batzuk, beste amabiak Egubeñitik Eregenetarakoak. Lenengo amabien izena *signos* omenda, beste amabiena *contrasignos*.

IV. Beste gaitxo bat orain: sineskerizko eleak, erderaz «vocablos supersticiosos». Jaca-aldeko mendi eskerga aien artean onelako oitura ta sineskeri ta batez ere euskerazko itz zar bila eman ditudan opor-egunetan, sineskerizko itz auen beñi jakin nai nuen; alperik ordea. Orain urte asko dela, ni neronen amargañean bizi nintzanean, Lekeitioko arantzaleak itsaso zabalean zebiltzen artean, etzuten deabruarengatik *diabrua ez demoñiñua* esaten, ezta otseztiz (por eufemismo) *denganiñua* ere. Nire eritaren ezpainetan *beste mutila* zan, itsasoan ari zirenar-tean beintzat, gure etsaiaren izena. Amezketañen artean *gaizkiñe* edo *kazkiñe* zan au ta *kazkin-dunak* Jaca-aldeko «espirituados» edo «endemoniados. Orion, Bazlanen, Lañunen eta beste alde askotan *kaltzagorri* dadukate deabruaren ordezeko eletzat, iztatzat. Bizkaiko erri askotan eta Antzuola ta inguruetan *Txeñen* esan oi da orain ere. Alemanian latinezko *diabolus*-en ondorengo *Teufel* daukate; baina gure aurretiko gizaldietan itz ori ezpaineratzeko kemenik etzutelako, *Gottseibiens* esaten zuten; itzez itz «Jaungoikoa bego gure artean». Gure egunetako iztegi-tan ere bizi da ele laukoitz au.

Len aipatu ditudan arantzaleak, legoñean etziranean beinik bein, *katua* etzuten bein ere bere izenez aotan artzen. *Putz egilekoa* zan arentzat katuaren izena. Gure Eri maite onen inguruan itz auen antzeko baten bat ikasi nai izanañen, uts izan dut. Libururen bat edo beste irakuñiz urutietan arkitu dut auzoan ezin nuena. Inglaterrako Devonshire deritzaion itsasaldean ezomendute ango arantzaleak kuiaren (konejuaren) izena ezerengatik ezpainetarutzen (2). ¿Nondikoa otedute Andaluziañak *culebra* esateko duten iguin, bildur ta sarakioa?

V. Goazen aurrera. Orainarte aipaturiko *igarëgunak*, eta *beste mutila* ta *añkonararen atzamartxo*a ta areik arako sineste ta oituratxo batzuk izan leiteke zuen burutik noizbait iges egitea. Baina orain jakinaraziko dizutedan *Asto-lastera* beti izango duzue ilepean, buru-barnean. Napañoan (goiko ta bekoan) eta Zuberon oitura bitxi zar au aitona-amonen gomutan (oroipenean) bizi da oraino. Lenaldiz Baztanen jakin nuen, gero Luzaiden (Valcarlosen) eta beste toki orietan geroago. Etxe bateko emazteak bere senara jo egin zuela baseñren batean zabaltzen zenean, urëngo jaiegunean eriko zabalean (plazan) ikuskizun txanbelin bat izaten zan. Bi mutiko, senarëmazte bezala jantziak, agertzen ziran, luña lantzeko tresnaren bat edo beste eskuetan zituztela. Aitzurñen naiz laietan azten ziran lenëngo, ganoraz ta yasean (3). Laxter izkamizkal-ditxo bat sortzen zan beren artean eta asarätzen zirelako egiten zuten; eta emazte-soinekoz jantzia zegoenak zipli-zaplada ederañ ematen zizkion bere senartzakoari. Eriko zabal-inguruan ziren ikusnaiak lertu arte fara gozaro egiten zuten. Auxe zan aldi bateko *Asto-lastera*. Luzaiden *Asto-yokoa* zuen izena.

Alemaniañko Folk-lore-zale Sartorik dionez (4) alde askotan dira an asto-laster auek ezagun. Izen onen ordezeko toki askotan *Tierjagen* eman oi diote; itzez itz *Abere-eiza*; erderaz *caza de fieras*. Eztatuzte toki guzietan egikera berdinak. Nonbait senar ziplizaplatuaren atez kanpotik aritzadar andi bat, arik eta senar-emazteak pake gozotan jariarte, ongi josita ezañi oi dute.

VI. Zuen arteko askok, bein baino geiagotan irakuñi edodute Cervantes-en liburu ots andikoan datzan gai polit bat. Don Quijoterekin bere etxean eriko apaiza ta bizargina bigiran (5) zeudela, bizarginak, itz auek esan zituen: «por mí doy la palabra, para aquí y para delante de Dios, de no decir lo que la vuesa merced dijere, a rey ni a Roque ni a hombre terrenal, juramento que aprendí del romance del cura que en el prefacio avisó al rey del ladrón que le

(1) *Página 171.*

(2) *Espasa: Enciclopedia Universal ilustrada, tomo XXXII, pág. 411 (última línea de la primera y primera línea de la segunda columna).*

(3) *Bizkaierañko itz eder auek sar bitez erdiko euskalkian; erderañko «con habilidad y garbo».*

(4) *Sitte und Brauch von Paul Sartori, I, 120.*

(5) *Tertulian.*



había robado las cien doblas y la su mula andariega». Onetxen antzeko zerbait aspaldi luzean bizi da nire paper-artean, Napañoako baseiritxo batean, Ezkuñan, Arakilgo seme batengandik ikasitakoa. Lapur batek bein bere eriko apaizari diru andia ta mandoa ostuta gero, inori ere gertaera aren beñi ez emateko agindu omenzion, ilko zuela bestela: —¿Jaungoikoari ere ez? —Jaungoikoari, nai duzun bezenbat aldiz (1).

Apaiza uren igandeko meza nagusitan Prefaziora eldu zenean onelan eman zion Jaungoikoari bere atsakabearen beñi. «Eri onetan bada gizon bat, Salamon deritzon bat: mendietan, txaparetan, dirua kentzen, gizonak iltzen dabilen bat. Niri, neroni, kendu dizkit berogei otxin ta manda-mulatxo bat. Artaz gainera baita edanarazi ere mandamulatxoaren piza-tanfo bat. Ez esateko Jaungoikoari baizik. Argatik esaten diot gure Jaun eta Jaungoikoari. Or ziok, emen ziok: afaa elazue gizon ori». Sanctus, Sanctus, Sanctus jañaki zuen gero isiltxorik eñetoreak. Salamon elizatik noizbait atera zenean ¡¡jakina!! baitegira (kartzelara) eraman zuten lenengo ta laster urkamendira. Musika ta guzti ikasi nuen gauzatxo au ta alaxe noizbait argitaratua izango da.

Onetariko oitura ta sinestetxoak alkañengandik uruti diren erietan aldakuntze andiak geienetan izaten dituzte. Ziraunarengatik Alemaniako eri batzuetan esaten dute begi-bakar, sortua izan zela, uretxindoña (ruiseñoña) ere begi-bakar. Txori txiolari bikain onek bein ziraunari bere begia eskatu omenzion, egun batzuetarako, ez betiko. Nañasti (reptil) txatxar gaisoak, eskabide hura aintzat artuz, begia uretxindoñari idukiten eman zion ta geroztik or dabil egazti beñitsua eñekartetako euli ta mamu jaten eta aldikada batzuetan gau ta egun txio ta txoñotxotxio zoragañiro txiztuka. Ziraun eñukaña beñiz isilik beti, orbel-artean, aripean, satorzuloetan, ezer ikusten ezuela ta burua erakusten ere lotsa dela.

Oraino irudipentsuago deritzaiot Euskalerian, ziraunaren itsutasuna azaltzeko, esan oi den aldakuntzeari. Eloñioar bati entzun nionez, Jaungoikoak bein katua, sugea ta zirauna berarengana ageñarazi zituen eta banan banan nola bizi izateko ustea zuten galde egin zien. Katuak erantzun omenzion: «Jauna, ni besteak utziriko ondakinen batzuk jancez bizi izango naiz: añagi-puzkatxoren bat, añañ-ezur ta olako ezgauzatxoak agoratzu». Sugeak: «Jauna, kalterik egingo eztidana, dena dela, delakoa dela, nik pake-paketan utziko dut». Ziraunak: «Nik ez, Jauna; nik eztut inor paketan utziko». Gorozikan esan zidatenez, ziraunaren itzak auek izan omenziran: «Nik ikusi al dagidan guztia iruntsiko dot». Au entzunik Jaungoikoak ziraunari bi begiak atera ta erauzi ta betiko kendu zition.

VII. Beste gai asko utzi ta oilo eñulearen egikizunez gure Euskaleri maiteak dauzkan oitura ta uste batzuk jakinaraziko ditut urengo leñoetan. 1.<sup>a</sup> Oñzandianoko urian eta inguruko auzoetan, ango batek ezan zidanez, oilo-azpirako añañtzak irunaka ifinten dira. Lenengo irurak ifinkeran kurtze bat egiten da eurakaz otzaran «Aitearen, Semearen, Espiritu Santuaren izenean Amen», esanagaz. 2.<sup>a</sup> Durango-ondoko Magunan (berentzat Meume da bizi diren auzotegitxo) au entzun nuen: «Añañtza-ganean oiloa ilberan ezañita, oilanda geiago izaten dira; ilgoran bañiz geienak oilaskoak». Lañauenen ere berdin uste dute. Markina-aldean esakeratxo polit au jakin nuen: «Ilberako oilo-ezartea oilandatsu, ilbañikoa oilaskotsu». 3.<sup>a</sup> Añasaten ikasi nuen au: «Oñetarako egunik onenak astelena, eguena ta zapatua dira; txarenak martitzena, egubakoitza (ostiralari esaten die an egubakoitza) ta domekea. Lañauenen oñtera ostirala nai izaten da oiloa añañtza-ganean ezarteko. 4.<sup>a</sup> «Oñeak oska derañtsanean trumoiagaitik kaltzairu-zati bat ifinten jako ondoan oiloari». Añasaten esan zidaten au ere. Bizkaian ta Gipuzkoan ta Aragonen ere uste ta oitura berdiña dute. 5.<sup>a</sup> Alemanian, zertarako eztañit, añañtza-azalak lurpean jartzen dituzte. Eloñion (oñloak ezin dutelako oñeda?) añañtza osoak, an esaten denez, sats berotan edo ongañi epeletan sartuta, txitak ateratzen dira. 6.<sup>a</sup> Oilanda asko ta oilasko gutxi nai dituenak zerbait esan oi dio oiloari añañtze-ganean ezartorduan. Alemaniako oitura da au (2). Eloñion «Madaleneak gorde zagizala» esan oi diote.

(1) Beste aldiñ-en ordeñ sar bite erdiko euskalkian eguzkialdeko euskaldunen itñ eder au: zenbat beñala, onenbat, oñenbat, aenbat edo ainbat eta bezenbat «tantos como».

(2) Handwörterbuch des deutschen Aberglaubens, I, pág. 388.



VIII. Mintzaldi onetan *beste mutiña* ta *Txeñen* ta *kaiñkindunak* aipatu ditudanezkerok, apaiz naizen onek gurenen bat (santuren bat) ere aotan artu bear dut. Eztago Doniane edo San Juan baino oitura ta eri-sineste geiago gure Euskaleñi maitean sortu duenik, egubeñi bera ere ez. Beko Amerikan bezala, gure artean ere Egubeñi uda-aldean balitz, izan leiteke oituratan Doniane baino ugariago izatea. Donianezko oitura batzuk, bai gure arteko ta bai beste eri askotakoak, paganuengandikoak ditugula libururen batzuetan irakuri diteke. Oitura auen artean ageriena aureko gabeen suak egitea da. Suaren gainean zapart edo ijuti egite-orduan neska-mutikoak zerbait kantatzen dute. Durango-aldean: «San Juan, San Juan, eztoz nik besterik gogöan; lapuñak eta sorgiñak ere, ere; artöak eta garidñak gorde, gorde». Oyartzunen: «San Juan, San Juan eldu da; sorgin-begia galdu da; galdua bada galdu bedi; ¡sekulan agertu ezpaledi!». Lañunen su oñetan igazko San Juan-belañak eñeten dituzte eta naiz atso naiz agure, neskatxa naiz mutiko, iru aldiz gutxienez su andi aren gainetik igaroten dira. Lenengo itzulaldian *Biba San Juan Batistä* esaten dute, bigañenean *Biba Doni Belaio ta San Pedro*; irugañenean *Sarna fuera* (batzuk *Sarna Gipuzkoara*), *ogi ta ardoa Napañoara*.

Paul Sartoriren *Sitte und Brauch* deritzaion liburuan irakuri dudanez, San Agustin andiak min artzen zuen kristauak Doniane-egunean, paganuen oitura bat berentzat artuz, itsasora bustialdia artzera joan oi zirelako. Euskaleñian oñelako zerbait badugu. Legor-aldeko baseñi askotan, Napañoan batez ere, itsasora ez (urutiagi dutelako) bainan goizaldean gari-arteko intzez gorputza bustitzera lagun asko joaten dira, lañu goñian ez gutxi. Beste ibar askoren artean Anozibar deritzaion bat datza Napañoan, iru basauritxo dituen: Ziañiz, Ripa ta Latasa. Ibar onetan ituñi bat da, Aingiru-ituñi izenduna. San Juan-bezpera gabeen, inguruko batek esan zidanez, puñustaka edo saldoka edo mortxaka andietan joaten dira aurpegia (batzuk gorputza) bustitzera eta lauhoak (pezetak ere bai) ituñira egotzi edo botatzen dituzte. Betelun ere Dama-ituñira ta Ituñi santura gau guzian eñiko ta erbesteko lagunak ugari joaten dira. Ura ezomen da bat ere zikintzen. Beste oitura zar bat, paganuengandikoa dirudiena au ere, Doniane-aureko gauerdian gauerdi eñi askotan daukate: Bizkaiko Amorobieta, Barakaldo ta Otxandianon, Napañoako Ultzaman, Lañunen eta Eñonkarin gutxienez. Aur batek etena edo hernia duenean doniane-auregunean aritz bat añailatu egiten dute, bi adañak alkañengandik banatuak edo zabalduak dituela. Lañunen Juan izentzat duen bi gizonen erabilten dute aña; Barakaldon bi Juan ta emakume bat, Maria, artzen dituzte oñetarako. Otxandianon Juan ta Pedro bear izaten dira ta an esan zidatenez «bikidñak izan beñar dabe» edo batera jaoak. Gauda erdira eldu baino lentxeago an izaten dira Juan ta Juan edo Juan eta Pedro. Lañundañen itzak dira auek: «Juan batak aur eten ori eskuetan izaten du, erlojuak ots egin bear dueneko ernai ta gertu. Lenengo dandara entzunaz batera beste Juani emañen dio aña, itz auek esanez: *Juanek uzten zaiñu*. Bigañen *Juanek*, aur hura eskuetan artzean, *Juanek artzen zaiñu*, ark *Juanek artzen zaiñu* eta olaxe batak utzi ta besteak artu, aldizka itz oriek esanez, ari izaten dere (1). Amabigañen dandarak ots eginez batera isiltzen dere biak. Iru aldiz igaran bear izaten dui (2) aur etena aritz gazte artesiaren alde batetik bestera». Otxandianoko beñi-emaileak esan zidanez «aritz bañiro lotu egiñen dabe ta usteltzen ezpada, umäa osatuko da». Ultzaman iru Juan bear izaten dituzte onetarako. Lenbizikoak bigañenari «To, Juan» eñaten dio. Bigañen Juanek irugañenari «ar zak, Juan». Irugañenak lenbizikoari «Tori, Juan».

IX. Uñengo ataltxoan sartu-orduko, mintzaldi au zerengatik aldatu dudanez erakutsi nai dizutet. Aspaldiko adiskide baten gogo aintzat artuz *Sorginak Euskaleñian* artu nai nuen lan onen gaitzat eta asmo oni bizia ematen asi nintzaneko ikusi nuen sei ilebete enituela aski izango, bear bezala gai ori ikasi ta idazteko. Oñetarako nai ta ezkoa nuen «Deabruak gizaldi askotan gizonen artean izan duen bitartekotasuna» ikasi-beara. Eztaikit inoiz ikaste au sakon-sakon egiteko astirik izango dudanez. Goazen orain azken-ataltxoaren beñi ematera. Napañoako alde batzuetan ezkontzarako xurimenta edo barneko soinekoak gertatzen gazterik asten ziran emakumeak. Amayuñen ta Baraibañen neskato batek, amairu bat urte zituela, artzen zuen gu-

(1) Dira.

(2) Dute.



rasoengandik, linoa ereiteko, lur-zati bat. Ordudanik asten zen neskatxa bere linoa berak iruin eta euleak egindako euna berak zuritu ta ikuzi edo garbitzen.

Beizaman, esan zidatenez, ezkontzaurean bigarren deiak erakutsita urango ostegunean ezteiliar bakoitzak gaitzeru bat gari ta gainera olio bidaltzen dute. Duro bat ere ematen dute aide urko ta auzoak. Gazteak beñiz maindre ta zapiak edo beste zerbaiten eřegalua (bezuza) egin oi dute. Leniz-ondoko Gatzagan ta nire jaioterian gutxienez oitura berdin bat daukate. Bigarren elizdei-egunari bota-eguna (zato-eguna) esaten die edo zien. Bazkaria baino lentxeago emaztegiaren areoa erakusten da, itz aukerak erakusleak ezpainetan artuz: *amabi kamisa dauko, amairugařena soiñean*. Itz aukerak entzutean norbaitek isiltxorik beti esaten omendu: *eřtakigu gero daukan ala eřtaukan*. Lekeition areoa erakustorduan berdintsu itz egiten zan: *amabi kamisa daukař, soiñean be eřtago ain barik; řařpi, řapi daukař, soiñean be eřtago ain barik; kaltzerdiak řortři, soiñean be eřtago ain barik...* eta, ořelaxe barneko jantzi guztien beři emanda gero, «Amen guztiak eta geiago balio dabena» gaineratuz, emaztegia aurkeztua izaten zan.

Webster-ek *Quelques notes archeologiques* deritzaion liburuan dionez, Donibane Lohitzunen senar-emazteak ezkontza-meza bitartean ogi bat alkaři ematen diote. Bidasoa-ertzeko Beran beři bat edo bi, oso politak, eman zizkidaten. «Emázte beřia itxé batéřa sártzen denian erliai au esán beřar zaie: Erliak: orain eřeřpetátu beřar duzúe itxéko ándre beři au» eta gaineratu zidatenez, Eltzaurdia deitzen zaion etxealdean etzuten au egin eta erleak igesi joan ziran. Bigarrena: «Itxéko andré beřiari zářak buřúnzalia emáiften dío, itxéko nagusitasunéan sártzen dela adiarázteko».

Bide beři zabalak nonnai eginak diren gure egun auetan ezkontza-oitura zar geienak joanak dira. Lenago eztei-egunean ezkonbeřiak maipuruan egoten ziran. Bigarren egunean berak egin beřar izaten zituzten otseinen lanak. Orain Arabařak badira, senar-emazte beřiak, baseřitařak ere, Gazteiza doaz: Bizkaitařak badira, Bilbora; Giputzak Donostiara; Lapurtar, Benapar ta Zuberotařak Baionara; Napařak įjakina! Iruñara. Zuen artean laster ezkontzeko baseřitařen bat balitz, «Eři, esango nióke, senarturik burua ikusi dezazun egun andi artan, emaztea lagun duzula uri andiren baterako bidea artzeko bazera, zoaz Ritz naiz Karlton naiz Palace naiz beste ořelako Hotel apain andi batera. Edozein ořtatutxotan baino diru geiago eřtuzu beřar izango ta zoaz. Orain andizkiak ere, aurpegiari ermaiñuren bat eřpadaukate beřintzat, zuek bezala bizarpeiturik agertzen dira, ta zoaz. Ingalaterrako eřegegia txapela buruan duela agertzen den egun auetan eřtuzue kapela-beařik izango, norbait bezala uririk aundienetan agertzeko... ta zoaz. Ori bai. Amasa naiz Leaburu naiz Amezketa naiz Alkizatik beřa etořiak zera-tela eřagutu eřtezaten jar zazue papařean Baztandařak řařařa izendatzen duten apaingařia, korbatatxo bat; eta ez gero eskuak sakeletan sartuta iduki, kalerik kale zabilzaten artean. Hotel aundi ařigařian sartutakoan, zuen alkatea eřiko jaietan baino ere apařnagorik auřeratuko zaitzuten mořoiari *número trece* eska zaiozute. Gora zaramazkiteneko, *doce* naiz *catorce* eskini-ko dizkizute. Zuek zerořenari eutsi: *trece*. Amairugařenik, numeru ořek zori txara dakařelako, amairugařenik eřtutela esan dezazuenean, zuek orduan masailak aizez bete-bete eginda řařa egin eřazue gogotik. Zoaze gero kalera ta beste Hotel aundia urřutitxo baldin bada, beribil edo automobilik edeřenera urbildu zaitezte. Barnera beřar duzuneko, galde egin beribilzainari (txofeřari) an atze-aldean zinzilika ageri den jostailutxo hura zer ta zertarakoa den. «Au mas-cota da. —¿Zertarako jartzen duzue? —Bideztiak zori txariř izan eřtezaten jartzen dugu au». Zuek au entzundakoan beřiz bi masailak eta gainera geři-aldea asnasaz bete-bete egin ta mas-kotari begira ler egin arte gozaro řařa egin eřazue. Zoaze gero, uriaren ikuskizunik edeřenak begian sartuz, zoaze kalerik kale ta txalkořik (bizkar-makuřik) ageri bada, zaudete puzkatxo batean geldi. Laster ageri izango da euskaldun-antzik inondik ere eřtuen norbait eta barneko sakeletik txartel bat, loteriako biřetea esaten zaiona, aterata, txalkor aren bizkar-mutuřean papertxo hura darabilela dakutsunean, norbaiti zirimoneria hura zertarakoa den galde egin zaiozue eta loteriako sari andi bat (premio andi bat) izateko dela jakin dezazuenean, beřiz asnasaz ta aizez ta eguratsez bi masailak eta geři-aldea ta bulařa ta gorputzaren utsune guziak bete bete egin ta ler eta zapart eta eřtanda eginarte gogotik eta gozaro iři ta řařa egizue.

Gero uri andian egun gutxi batzuk igarota zoaze beřiz zeron jaioturixora eta eř artu kale-



artean beti izateko gogorik. Or goietako Euskaleñia kale-artekoa baino Euskaleñiago da. Zuen seme-alabatxoak beren eskoletan ikasi dezatela, erdera ere bai, baina orainarte gure artean egin eztena-aitortzen ere lotsa naiz-beren izkera zar, eder, bakar, berdingabe au ikas dezatela eta izkeraz batera baita aspalditxoan bilduak diren bi mila kanta zañen artetik eun bat bederen. Oñela or dukezuen pake uregoñia etzenukee kale-artean izango. Jaungoikoarekiko adiskidetasun gozotan or bizi bazerate, bealdean baino ortik urbilago, gertuago, eskuerarago izango duzue betiko zoriona.

*Lekeition 1930'ko garoilaren 2'an.*

